

**EDUKIAK: HISTORIA GARAIKIDEA**

0. Sarrera: Historia, etengabeko aldaketen zientzia.
1. Mundua milurteko berria. XXI. mendeko ordena berria. Gaur egungo egoera
2. Erregimen Zaharraren Krisia
3. Liberalismoa eta Nazionalismoa. (XIX. Mendea Europan eta Espainian).
4. Industria Iraultza. Langile Mugimendua eta ideologiak.
5. Inperialismoa eta I. Mundu Gerra. 1917ko Errusiako Iraultza
6. Bi gerren arteko garaia: 1929ko krisia eta Faxismoa eta Nazismoa. II Mundu Gerra. Gerra Hotza eta gerra ondoko egoera.
7. Espainiako II. Errepublikak, Gerra Zibila, Frankismoa, Trantsizioa.

**MATERIALAK:**

Vicens Vives testu liburua eta irakasleak emandako txostenak izango dira ikasgaiaren jarraibideak. Horretaz aparte, dokumentalak, pelikulak, irakurketak (liburuen zatitxoak zein liburu osoarena), ikasleek egindako lanak...euskarri ere izango dira.

**KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK.**

Kalifikazioetan kontzeptuak, prozedura eta jarrerako edukiak baloratuko dira, besteak beste, kontzeptu historikoen ulermena eta erabilpena; prozesu historikoen azalpena eta erlazionatzea; kausak eta ondorioak ongi azaltzea; balorazioak edo konklusioak egitea, etabar.

Gizarte zientziaren edukiak euskaraz adierazteko gaitasuna, idatzizkoa zein ahozkoa, kontuan hartuko da kalifikazioak jartzerakoan.

Azkenik, ebaluazioa burutzeko, **azterketez** aparte, **klaseko zein etxerarako lana, gelan erakusten den jarrera, parte hartzea edota ahozko azalpenak** kontutan hartuko dira.

Kalifikazioa jartzeko ordua ondoko banaketa egingo dugu

-Azterketak----%80

-Aipatutako lana-----% 20 (klasekoa zein etxekoa)

Klasean egindako lana zein jarrera ona ezinbestekoak dira. Jarrera txarra duen ikasleak 2 puntu horiek galduko ditu. Oso jarrera txarra duena (E) automatikoki suspenditurik egonen da.

**BERRESKURAPENEN PROZEDURAK ETA IRAILEKO FROGA.**

Ebaluaketa guztiek berreskuratzeko azterketa izango dute. Berreskurapen bakoitza hurrengo ebaluazioaren hasieran egingo da, eta ebaluazioaren eduki guztiak sartuko dira. Kurtso bukaeran, NAHIKOTASUN FROGA egingo zaie ebaluazio guztiak

gainditu ez dutenei, irakasgaia gainditzeko nahikotasun froga hori gainditu behar dute. Nahikotasun froga horretan ikasleak gainditu gabe duen ebaluazioaren berreskurapena egin beharko du bakarrik. 3. ebaluazioaren berreskurapena nahikotasun froga egitean egingo da, hau da aukera bakarra izango du ikasleak berreskuratzeko, araudia aldatzen ez bada.

Berreskurapen frogak, oinarrizko eta gutxiengo edukietan oinarrituko dira.

Azkenean, ikasleak ez badu lortzen nahikotasun frogan gainditzea EZ OHIKO azterketa egin beharko du ekainaren bukaeran, ez ohiko frogan gaitegiaren edukin minimo guztiak sartuko dira, hau da, azterketa orokorra izango da.